



TREBAKUNTZA 2012/04: ADITZA AURRERA

Udal idazki askotan esaldiko informazio garrantzitsuena atze-atzean uzten dugu, eta horrek esaldi nahaspilatsuak sortzen ditu. Nagusiki aditz deklaratiboekin gertatzen zaigu hori: esan, adierazi, jakinarazi, ukatu, aitortu, egiaztatu, agindu, erabaki... Hona hemen gaizki egindakoak zuzentzeko irizpide batzuk.

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak ez dute zertan gaizki egon, baina badago esaldi horiek hobeto idazterik.

OHIKO AKATSAK

1. **Dokumentazio guztia eskura izan arte ez dutela erabakirik hartuko adierazi dute.*
2. **Idatzi honen bidez, Ubide auzoan hogeitazetxe bizi izan diren familia bakarrekoak eraikitze baimena eskatzen dizut.*
3. **Alkateak baimena emateari buruz eztabaidatzeko lekurik egokiena Hirigintza batzordea dela adierazi du.*
4. **Eskatzaileak Loiola auzoko Iturribide kaleko 5.A etxebizitzan bizi dela jakinarazi du.*
5. **Alkatea, kulturako zinegotzia, langileen ordezkaria, liburuzaina, IVAPeko ordezkaria eta idazkaria izango dira epaimahaikideak.*
6. **Bakarkako interesen ginetik arazoaren ikuspen globala defendatzea, langileriaren batasunaren aldeko lana, kalitatezko informazioa eta gauzak era demokratikoaren bitartez egitea, hauexek dira gure langaiak.*

Udal erri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uma.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99

ZUZENKETAK ETA AZALPENAK

Askotan, aditzak biltzen du informazio garrantzitsuena, eta irakurleari lehenbailehen ematea komeni da.

1. Ad. **Adierazi dute** dokumentazio guztia eskura izan arte ez dutela erabakirik hartuko.

Adierazi dute ez dutela erabakirik hartuko dokumentazio guztia eskura izan arte.

2. Ad. Idatzi honen bidez, **baimena eskatzen dizut** Ubide auzoan hogeitxebizitza familia bakarrekoak eraikitzeko.

3. Ad. Alkateak **adierazi du** baimena emateari buruz eztabaidatzeko lekuri egokiena Hirigintza batzordea dela.

Alkateak **adierazi du** Hirigintza batzordea **dela** lekuri egokiena baimena emateari buruz eztabaidatzeko.

4. Ad. Eskatzaileak **jakinarazi du** Loiola auzoko Iturribide kaleko 5.A etxebizitzan bizi dela.

Eskatzaileak **jakinarazi du** Loiola **auzoAN bizi dela**, Iturribide kaleko 5.A etxebizitzan.

> Kataforak (hauek, honako hauek...) eta zerrendak erabili.

5. Ad. **(Honako) hauek** izango dira epaimahaikideak:

- Alkatea
- Kulturako zinegotzia
- Langileen ordezkaria
- Liburuzaina
- IVAPeko ordezkaria
- Idazkaria

Hona hemen epaimahaikideak: alkatea, kulturako zinegotzia, langileen ordezkaria, liburuzaina, IVAPeko ordezkaria eta idazkaria.

6. Ad. **Hauexek** dira gure langaiak:

- Bakarkako interesen gainetik arazoaren ikuspen globala defendatzea
- Langileriaren batasunaren aldeko lana egitea
- Kalitatezko informazioa ematea
- Gauzak era demokratikoaren bitartez egitea

Udal erri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uma.org

Hauexek/honako hauek dira gure langaiak: bakarkako interesen gaintik arazoaren ikuspen globala defendatzea, langileriaren batasunaren aldeko lana egitea, kalitatezko informazioa ematea eta gauzak era demokratikoaren bitartez egitea.

KONTUZ! Horrelako zerrendak ematean, ez erabili **hurrengo*, **ondoko* edo antzekorik. Forma zuzenak hauek dira: hona hemen, honako hauek...

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

- Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)
- Posta elektronikoz: bizkaia1@uema.org (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99